// NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia Iruñean, 1997ko apirilaren 14a 26 ZK.

## A U R K I B I D E A

G SAILA:
**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**
—"Unibertsitatez besteko irakaskuntza Nafarroan" izenekoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

**G Saila:**
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

# "Unibertsitatez besteko irakaskuntza Nafarroan" izenekoari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 3an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako "Unibertsitatez besteko irakaskuntza Nafarroan" izenekoari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila egintzea erabaki zuen.

Iruñea, 1997ko otsailaren 4a

Lehendakaria: Mª Dolores Eguren Apesteguía

## "Unibertsitatez besteko irakaskuntza Nafarroan" izenekoari buruzko fiskalizacio txostena, Kontuen Ganbarak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Helburua (3. or.).

**III.** Norainokoa, metodologia eta mugak (3. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendioak (4. or.).

**V.** Hezkuntza Nafarroan (6. or.).

**VI.** Itunak eta dirulaguntzak (7. or.).

**VII.** Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eta gutxiengo etnikoak (9. or.).

**VIII.** Kostuen azterketa eta itun moduluarekiko alderatzea (10. or.).

**IX.** 1995/1996 ikasturteko hezkuntza barrutiak. Baliabideen azterketa (12. or.).

**Eraskinak**

1. Ikasleen bilakaera hezkuntza ereduen arabera. (20. or.).

2. Plantilen eta ikasgelen bilakaera. (21. or.).

3. Ikasleak nola banatu diren ikastetxe publiko eta pribatuetan. Estatuko bilakaera. (23. or.).

4. Irakasleen soldata eta lanaldiak alderatzea, dauden hitzarmenen arabera. (25. or.).

5. Hezkuntza barruti bakoitzeko erakusle nagusien banakaketa (26. or.).

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak behinbehineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (39. or.).

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurkeztu alegazioei Kontuen Ganbarak eman dien erantzuna. (40. or.).

### I. SARRERA.

Kontuen Ganbararen 1996rako lan programan sartu zen Nafarroako unibertsitatez besteko irakaskuntzari buruzko lan hau, Nafarroako Parlamentuak ahoz egindako proposamenari jarraituz, lanaren gai zehatza eta norainokoa konkretatu ez baziren ere.

1993an, Nafarroako Kontuen Ganbarak txostena egin zuen Hezkuntza Departamentuko "Irakaskuntza maila guztietako eskolatze baldintzak hobetzea" programari buruz. Txosten hartan, Nafarroako irakaskuntzaren egoeraren azterketa orokorra egin zen, besteak beste.

Hezkuntza Departamentuko aurrekontuen egiturak ez du biderik ematen jarduera bat aztertzeko programa fiskalizatzerakoan, izan ere, eta esate baterako, irakaskuntza orokorra hiru programatan banatzen baita, eta kontuan izan behar da, gainera, jarduketen zati bat udalen gain dagoela. Beraz, ez dugu aurrekontu programa baten fiskalizazioa egin, aurreko txostenaren datuak eguneratu eta sakondu ditugu, ordea, eta gure ustez Parlamentuari erabakiak hartzea errazteko informazioa ekarriko lioketen alderdi berriak aztertu ere.

Aldi berean, Parlamentuak hala eskatuta, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako irakaskuntzari buruzko lana egin du. Gure lana bukatzear genuela helarazi digute aipatu azterketa. Hartara, biak egin dira paraleloki.

Ondoren aurkeztuko ditugu, labur bada ere, hezkuntzari eragiten dioten legezko alderdirik behinenak.

1978ko Konstituzioak ezarri ditu irakaskuntzaren oinarrizko hatsapenak. Hona, laburbildurik:

• Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea.

• Oinarrizko irakaskuntza doakoa eta derrigorrezkoa da.

• Botere publikoek bermatu egiten dute hezkuntzarako eskubidearen benetako erabilera irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez.

• Ikastetxeak sortzeko askatasuna.

• Botere publikoek laguntza emango die legeak ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeei.

Ondoren, Hezkuntza eskubidea arautzen duen Lege Organikoak (LODE) garatu ditu aurreko hatsapenak eta gainera ezarri:

• Gurasoek edo tutoreek, legezko xedapenek ezarri dutenaren arabera, eskubidea dute botere publikoek sortutako ikastetxeez bestelakoa aukeratzeko.

• Ikastetxe pribatuak sortzea administrazio-baimenaren hatsapenaren menpe dago. Aipatu ikastetxeak, itunduak edo ez itunduak izan daitezke.

• Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoa (LOGSE) onartzearen ondorioz, ezartzeko bidean dena oraindik, hezkuntza sistema hurrengoetan banatzen da:

• Haur hezkuntza. 6 urtera arte. Bi ziklotan banatzen da.

• Lehen hezkuntza. 6 urtetik 12 urtera. (6 ikasturte)

• Bigarren hezkuntza, hurrengoetan banatzen da:

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 12 urtetik 16ra. (4 ikasturte).

2. Batxilergoa. 16 urtetik 18ra (2 ikasturte)

3. Erdi-mailako lanbide-heziketa. Hainbat prestakuntza ziklo hartzen du, modulukako antolamenduarekin, iraupena finkoa ez delarik.

• Goi-mailako lanbide-heziketa.

• Unibertsitateko hezkuntza.

Aipatu legeak arte-irakaskuntzak ere arautzen ditu (musika, dantza, arte dramatikoa, arte plastikoak eta diseinua), hizkuntzak, orobat.

Lehen hezkuntzak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzak osatzen dute oinarrizko irakaskuntza. Derrigorrezkoa eta doakoa izanen da eta 10 eskola-urte hartuko ditu, 6 urtetik 16ra.

Izaera orokorreko eskubideon edukia kokatu eta zehazteko xedapenak ere badira, jakina.

## II. HELBURUA.

Aurreko atalean iruzkindutakoaren ondorioz, Kontuen Ganbara honek egin duen lanaren ardatz izan dira aurreko txosteneko datu eta berriak eguneratu eta osatzea, hezkuntza maila edo eredu ezberdinetako gastuei, hezkuntza eredu ezberdinetako ikasle kopuruaren bilakaerari, hezkuntzarako itun eta dirulanguntzen bilakaerari eta haren banakaketa edo kontzeptu-zatiketari buruzkoan; irakaskuntzan ari diren langileak hartzen dituzten hitzarmen kolektiboen baldintzak alderatzea, irakaskuntzaren kostuei eta hezkuntza-itunetako moduluekin duten zerikusiari hurbiltzea, eta hainbat koadro erakustea, azterketa egin eta ondorioak ateratzeko, Foru Komunitateak eskola adinako gazteen hezkuntzaratzea errazteko dituen baliabide dozenteen banaketari buruz.

Hezkuntzarekin zerikusia duten gaietan ohikoa da datuak edo informazioa alde ideologikoekin nahastea. Hori horrela, Kontuen Ganbara honek egokitzat jo du azterlanean zehar atera den zenbait kontzeptu iruzkintzea, alde teknikotik ekin behar izan diegulako, gauzak argitu eta Parlamentuari informazioa eman ahal izateko, gaion inguruan sortzen den eztabaida erraztu eta erabaki egokiak hartzeko moduan.

Aurreko helburuekin bat, uste dugu ateratako hainbat ondorio jarduketa-aukeratzat hartu behar dela eta, onartu edo erabakia hartu baino lehen, balorazio osatuagoa eta alderdi pedagogikoen ponderazio handiagoa eskatzen dutela.

## III. NORAINOKOA, METODOLOGIA ETA MUGAK.

Lanari ekiteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari eskatu dizkiogu ikastetxeen datuak, hurrengoak jakiteko: ikasleak, ikasgelak, hezkuntza ereduak eta azterlanaren xedeen arabera beharrezko iritzitako beste oro.

Horretaz gain, Nafarroako Kontuak ere aztertu dira, itunpeko ikastetxeei emandako dirulaguntzen kopuruen bilakaera egiaztatzeko.

Era berean, sektorean ezartzen diren hitzarmen kolektiboen azterketa ere egin dugu, irakasleen lan eta soldata baldintzak baloratzeko.

Irakaskuntzaren kostuekiko datu eta azterlanik ezean eta arlo horretan informazio erabilgarria emateko asmoz, kostuen azterketa egin da irakaskuntza-mailaka itunpeko bi ikastetxetan, horietako bat udal jabetzapekoa zelarik.

Ikastetxeok aukeratzeko arrazoia izan da haien kontabilitate egoera-orriak eta beharrezko informazioa eskuratzeko eskaini ziguten erraztasuna, ezinezko izan baitzitzaigun hezkuntza alorreko lagin errepresentatiboa osatzeko moduko ikastetxe kopurua aztertu.

Foru Komunitatea 18 barrutitan banatua dago hezkuntza aferetarako eta denak aztertu dira.

Oro har, gure azterlanak 1995/96 ikasturtea hartzen du. Lanaren zati batzuetan, ostera, beste ekitaldi batzuei buruzko zehaztasunak ere sartu dira, azterketa zabaldu edo informazioa osatzeko asmoz.

Kontuen Ganbara beste azterlan batekin ari da, alegia, laister argitaratuko den Hezkuntza Departamentuko langile-kudeaketari buruzkoa. Hori dela eta, azterlan honetan ez dugu arlo hori ukitu.

Kontuen Ganbarak bere azterlanetan erabili ohi duen metodologiatik abiatuta, alegia, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak prestatu dituen Sektore Publikoko Kontu Ikuskatzailetza Arauetatik, txostenaren zati bakoitzean edukiari eta gorabeherei ustez gehien egokitzen zaien metodologia erabili da.

Txosten honetarako mugen iturburuak ditugu:

• Neurtzeko gai diren helburu zehatzik eza. Orobat, irakaskuntzaren alde kualitatiboak eta kalitatearen balorazio orokorra balioesteko erakuslerik eza.

• Irakaskuntzaren kostuei buruzko azterlanik eza.

• Pedagogi gaietako aditurik ezean, ezin izan dugu alderdi tekniko jakin batzuei buruzko iritzirik eman.

Zelaiko lana uztaila eta urria bitartean egin da, datuak biltzeko lan batzuk lehenagotik hasita bazeuden ere.

Eskerrak ematen dizkiegu Hezkuntza Departamentuko langileei eta, bereziki, itunpeko zentroetakoei, txosten hau egiteko eman duten lankidetzagatik.

## IV. ONDORIO ETA GOMENDIOAK.

Gure azterlanetik eratorritako ondorio eta gomendioak aurkeztu baino lehen, egoki deritzogu iruzkin orokorrak egiteari, gure aburuz komenigarri baita gogoan izatea hezkuntza gaiei ekiteko.

Hezkuntza alorrean atezua izatea berez datorren gauza da, etangabeko bilakaera behar baitu, gizarte beharrizan berri eta aldakorrei egokitzeko.

Gazteen prestakuntza hainbat jarduketaren bitartez gauzatzen da, eskola, garrantzi handikoa izanik, bakarra ez delarik. Horri gagozkiolarik, on da gizarte guztiak kontua ateratzea irakaskuntza sistemak noraino heldu behar duen eta heldu daitekeen prestakuntza arloan eta gizarte-desberdintasunak orekatzeko zereginean, eta beste erakunde batzuei zer arlo dagokien (familia, erlijio erakundeak, zibilak, kiroletakoak... eta abar).

Gure sistema juridikoak herritarrei ezagutzen dizkien hatsapenak (doakotasuna, ikastetxea aukeratzea) mugatu egiten dira praktikan aurrekontu-erabilgarritasunagatik edo hainbat herritan hezkuntza-aukera bakarra izateagatik, esate baterako.

### IV.1. ONDORIOAK.

**1go.** Hona Nafarroako hezkuntzaren zehaztasunak:

• Beste elkarte batzuk baino aurrekontu-ahalegin handiagoa, ikasleko gastu handiagoa dakarrena.

• Geografia eta populazioaren berezitasunak direla eta, beste alde batzuetan baino kostu handiagoa.

• Eskolatze osoa hiru urtetik gora.

• Ikastetxe pribatu guztien jarduera itundua.

• Foru Komunitateko elebitasunaren ondorioz eredu zenbait direnez, korapilotsuagoa da.

Laburbilduz, atera daitekeen ondorioa da Nafarroako hezkuntzaren egoera, oro har, ona dela, hezkuntzaren gutxienekoak beteta daudelako. Beraz, hezkuntza sistemaren kudeaketaren hobekuntzari egin behar zaio arreta, baliabide ekonomikoak eta, hala balitz, hezkuntza kalitatea hobeto erabili ahal izateko.

**2gn.** Ikasketa sistema aldatzearen ondorioz Nafarroan sortu den eskola-mapa berria alde batera utzita, baliabideak eraginkortasunez erabiltzeak sektorea berrantolatzea eskatzen du. Berrantolaketa egiteko arrazoiak:

• Jaiotza-tasak behera egitea eta Iruñerriko populazioaren hazkundea, Nafarroako beste eskualde batzuen kaltetan.

• Ikastetxe batzuen neurria.

• Eskaria baino eskaintza handiagoa duten tokiak izatea.

• Gai berriak sartzea ikasketa planetan.

Hezkuntza sistemak azken urteotan Nafarroan izan duen garapena eta itunpeko irakaskuntzaren pisua kontutan, Iruñerrian batez ere, beharrezko dirudi alorraren plangintza egitea bi sare direla gogoan harturik: publikoa eta itunpeko pribatua. Azken horren ikastetxeetako jabeak dira erlijio-elkarteak; gurasoak, kooperatiba hartzen dutelarik forma juridikotzat (ikastolak); eta beste elkartze formulak, beste batzuetan.

Jarduketa hori, alorraren birmoldaketa azken finean, eskaintza eskaria baino handiagoa baita, orokorrean, leundu egiten da derriogorrezko eskolatze aldiaren luzatzea eta ikasle/ikasgela ratioa jaistearen ondorioz. Horri ekin baino lehen, beharrezkotzat jotzen ditugu ikasle kopurua eskariari egokitzeko aukera aztertzea eta, horretarako, gai berriak emateko irakasleen birtziklaia; aurreko erretiroak sustatzeko aukera eta kostua aztertzea, irakasleen adin-piramidearen arabera; eta irakasleak administrazioaren beste arlo batzuetan sartzeko aukera aztertzea.

**3gn.** Baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeak behar luke ezarritako ideiak apurtzea eta sare publikoa eta pribatua elkarrekin osatu eta koordinatu daitezkeela onartzea, ikasle gutxiago duten barrutietan, batez ere. Ildo horretatik, egoki da gogoratzea ikastetxe publiko eta itunpeko baten arteko alde teorikoak txikiak direla, LODEko IV. kapitulutik, itunpeko ikastetxeak arautzen dituenetik, ateratzen denez. Jarduketa horri ekin baino lehen, partaide guztiek jokatzeko arauak definitu eta onartu behar dituzte.

**4gn.** LODEko 49. artikuluak dakar Administrazioak itunpeko ikastetxeak finantzatzeko modua. Horren ondotik, azaroaren 20ko 9/1995 Lege Organikoak, ikastetxeetako parte hartze, ebaluazio eta gobernuari buruzkoak, arestian aipatu artikulua aldatu eta hauxe ezarri du:

"eskola unitateko modulu ekonomikoaren zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Nagusietan, edo, hala balitz, autonomi elkartekoenetan finkatuko da, urtero. Autonomi elkartekoek ezarritakoak ezin izango du Estatuko Aurrekontuetakoa baino txikiagoa izan.

Aipatu moduluaren zenbatekoak bermatu egingo du irakaskuntza doan izatea eta hurrengoak bereiztuko dira:

a) Irakasleen lansariei dagozkien kopuruak, ikastetxeetako titularrei dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazioak, kuota patronalari buruzkoak.

b) Bestelako gastuendako kopuruak, horien baitan: administrazio eta zerbitzuetako langileei dagozkienak, mantenimendu eta iraunarazpenerako ohikoak eta inbertsio erréalak ordezkatzekoak. Amortizazioak eta norbere kapitalaren korrituak inolaz ere ez dira kontabilizatuko. Aipatu kopuruak finkatzeko, ikastetxe publikoei ezarritako irizpideen antzekoak erabiliko dira.

Itun-araubidea garatzeko erreglamentazioak aintzat hartuko ditu irakaskuntza-kooperatiben berezitasunak, haren ekonomi eta giza baliabideen kudeaketa errazteko asmoz."

Kontuan hartzen bada noiz onartu den, aipatu lege hori ez da ezarri oraindik. Hala ere, komeniko litzateke aztertzea Foru Komunitateak duen aritzeko esparrua sistema hori aldatu edo osatzeko, helburu jakin batzuk betetzen dituzten ikastetxeei lehentasuna emateko, alegia, zer populazio-sektoreri egiten dioten arreta, kalitate maila edo ikastetxearen berezko baldintzak kontuan hartu ahal izatea.

Egun, Nafarroak hezkuntza maila desberdinetarako ezarri dituen moduluen zenbatekoa Ministerioaren menpe dagoen lurraldekoa baino handiagoa da. Hala ere, bi ikastetxetan egin den azterketatik atera dugunez (ikus VIII. atala), kontuan hartu kopurua dela eta lagina ez dela errepresentatiboa, beharrezko da moduluen zenbatekoa benetako kostuen finantzaketari nola egokitzen zaion sakonago aztertzea.

**5gn.** Egun dagoen eskaintza gehiegizkoak, jaiotza tasa jaisteak eta ikastetxea aukeratzeko eskubideak ekar lezake sare ezberdinetako ikastetxeak ez ezik, sare berekoak ere elkarrekiko lehian aritzea. Horri gagozkiolarik, gehiegizko eskaria gerta daiteke kalitezkotzat jotzen diren zentroetan, gainerakoen kaltetan. Horregatik, beharrezko litzateke ikastetxeen kalitate-erakusleak jartzea, kalitatea neurtzea ahalik eta gehien objektibatzeko eta, era berean, ikastetxeen arteko alderik ez izateko eragingarri gisa erabiltzeko. Are gehiago, finantzaketaren zati bat kalitate indize batzuk betetzearen menpe jar daiteke.

**6gn.** Ikastetxe batzuen neurria ikusita, beharrezko da azterketak izatea eskola unitarioetan ematen den irakaskuntza baloratu eta horrelako zentroei eusteko gutxieneko baldintzak ezarri ahal izateko.

**7gn.** Iruñerrian, itunpeko irakaskuntzan publikoan baino ikasle gehiago izateko arrazoiak aztertzea komeni da (horien artean aipa daitezke arrazoi historikoak, irakaskuntza publikoak duen irudi ezberdina, gizarte-beharrizanei egokitzea, jantokiak izatea, konparazione, ikastetxeetan ematen diren zikloak,

eta abar). Gogoan har bedi ikasgelako irakasle eta ikasle ratioak sare publikoaren aldekoak direla eta ez dagoela alderik baliabide materialetan.

IV.2. GOMENDIOAK.

*• Hurrengo hamabost urtetan hezkuntza-eskariak barrutietan zer eragin izango duen aztertzeko lanak hastea. Epe horretan 20.000 ikasle gutxiago izango baita, gutxi gorabehera, egungo guztizkoaren ehuneko 22.*

*• Funtsean jaiotza-tasa jaistea dela eta, sobran egon daitezkeen irakasleak birtziklatzeko, lehenago erretiratzea sustatzeko edota administrazioko beste lan batzuetan sartzeko epe erdirako aukerak eta kostuak aztertu.*

*• Irakaskuntza publiko eta pribatuaren kostuen azterketa sakondu, erabakiak datu errealetan oinarrituta hartu ahal izateko.*

*• Ikastetxeen irakaskuntza kalitatea neurtzeko sistema eskueran izateko lanetan aurrera egitea.*

*• Ikastetxe publikoek, pribatuak bezala, irakaskuntza ziklo guztiak (3 urtetik 18ra) eraikuntza berean emateko aukera eta egokitasuna aztertzea.*

*• Irakaskuntzaren doakotasuna noraino heltzen den zehaztea, eta beraz, moduluen kopurua eta banaketa sistema ezartzea.*

*• Irakaskuntza publikoaren eta itunpekoaren ratioen arteko aldeen zergatia aztertzea, eta ondorioz, bi sareetan hartu beharreko neurriak aztertu.*

## V. HEZKUNTZA NAFARROAN.

Hezkuntzaren gaineko alde zehatzei buruz hitz egiten hasi aurretik, interesgarri deritzogu hauxe azpimarratzeari: zabalerak, geografi eta eguraldi baldintzek eta populazio sakabanatuak, Komunitateko iparraldean, batez ere, derrigorrezko zerbitzuak ematerakoan duten eragina. Hezkuntza zerbitzuari bagagozkio, eragina ikasle gutxi duten eskola txiki asko izatean nabaritzen da.

Hona Foru Komunitateko hezkuntzaren zehaztasunik behinenak:

• Ia-ia ikastetxe pribatu guztiak itundurik daude edo/eta diruz lagunduak:

• Sare publikoa eta itunpekoa kontuan hartuz gero, legez derrigorrez eskolatu behar diren ikasleez gain, haur hezkuntzako bigarren ziklokoak ere eskolaturik daude (3 urtetik 6ra).

• Gaztelaniaren eta euskararen ofizialkidetasunak, Nafarroa hiru hizkuntz eremutan banatua egotearekin bat, euskarari buruzko legeak dioenaren arabera, berezitasunak ekarri dizkio hezkuntza sistemari. Horien artean azpimarratuko dugu hainbat eredu direla:

A eredua: Irakaskuntza gazteleraz. Euskara ikasgai.

B eredua: Ikasgai batzuk gazteleraz eta beste batzuk euskaraz.

D eredua: Irakaskuntza euskaraz.

G eredua: Irakaskuntza gazteleraz.

Azken urteotan euskarazko irakaskuntzak edo euskara irakasten duenak gehikuntza izan dute, D eta A ereduetan, batez ere.

Hartara, euskarazko ereduetan ikasten ari ziren ikasleek 1991/92 ikasturtean 19.550 baziren, 22.822 izan dira 1995/96 ikasturtean, hau da 3.272 gehiago, ikasle guztien multzoan 10.983 ikasle gutxiago dagoen bitartean. Ehunekoak kontuan hartuz gero, 1991/92 ikasturtean ehuneko 19 baziren, ehuneko 25 izan dira 1995/96 ikasturtean. Era berean, azpimarratzekoa da B ereduaren garrantzia hutsaren hurrengoa dela, 200 ikasle inguru baino ez dira. (1. eraskinean ikus daiteke datuon azalpena).

• Irakaskuntza eskaria jaitsiz doa, etengabe, jaoitze tasaren beherakada dela eta. 1985/86 ikasturtean, unibertsitatez besteko irakaskuntzetan 115.000 ikasle zegoen bitartean, 1995/96 ikasturtean 90.000 ziren: ehuneko 22ko beherakada. Ikasle kopurua gutxiagotzeak jarraitu egingo du oraindik hurrengo urteetan, azken urteotan izandako jaoitza-indizea dela eta.

Azken sei urteotan izandako jaoitzetatiak abiatuz, kontsideratzen badugu portzentaiak bere horretan iraungo duela, 70.000 ikasle izango dira 2008. urtean, hau da, 1995/96 ikasturtean baino ehuneko 22 gutxiago. Ikasle kopurua horrenbeste jaisteak eragin handia izango du ikasgela kopuruan eta irakasleengan, berez dator hori.

Berariaz aipatu ez bada ere, horrek esan nahi du birmoldaketa behar duen alorraren aurrean garela.

• Hona azken ikasturteetan izan den ikasgela eta irakasleen bilakaera, Nafarroako Gobernuak eskuratutako datuen arabera:

| | Publikoa | | Pribatua | |
|---|---|---|---|---|
| Ikasturtea | Ikasgelak | Irakasleak | Ikasgelak | Irakasleak |
| 91-92 | 2.782 | 4.815 | 1.474 | 2.188 |
| 95-96 | 2.578 | 5.159 | 1.339 | 2.161 |

Kopuruok beste koadroetakoak baino handiagoak dira beste koadro batzuetan aintzat hartu ez diren irakasleak sartzen direlako, dantzakoak, arte eta lanbidetakoak... konparazione.

Bigarren eraskinean ikus daitezke datuok banakatuago.

• Hezkuntza sistema berriaren ikaskuntzak ari dira ezartzen egun eta aurreko egoerarekiko aldaketak ari dira gertatzen.

• Estatuko Eskola Kontseiluak 1993/94 ikasturteari buruz emandako datuen arabera, haur hezkuntza eta UBI bitartean izena emanda zeuden zortzi milioi ikasletik, ehuneko 68 ikastetxe publikoetan zegoen eta ehuneko 32 pribatuetan.

Ondoren aipatzen diren autonomi elkarteetan, irakaskuntza pribatuaren parte hartzea batez bestekoa baino dexente handiagoa da. (3. eraskinean ikus daiteke datuon banakaketa, irakaskuntza motaren arabera).

| | Publikoa | Pribatua |
|---|---|---|
| Katalunia | 57 | 43 |
| Nafarroa | 59 | 41 |
| Euskal Autonomi Elkartea | 50 | 50 |

• Aintzinean, ikastetxe publikoek lehen edo bigarren hezkuntzan aritu dira eta horregatik bizi izan dira elkarrekin ikastetxe publikoak (OHOkoak) eta bigarren hezkuntzakoak (institutuak edo lanbide heziketakoak); azken urteotan, ikastetxe publikoak barrutika antolatzen dira. Horrek esan nahi du maila bateko ikasleak, ikastetxean ikasketak amaitzean, besterik gabe onartzen dituztela barruti bereko maila handiagoko ikastetxean, ikasle berriak hartzeko prozedurarik gabe. Pribatuan, ordea, ohikoa izan da eraikuntza berean ematea lehen eta bigarren hezkuntza, 3 eta 18 urte bitarteko ikasleekin.

Ondorioz, ikastetxeen banaketa oso ezberdina gertatzen da neurriaren eta jabearen arabera. 1995/96 ikasturtearen datuen arabera:

| Ikasle kopurua | Publikoak | Ehunekoa | Pribatuak* | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|
| 100dik behera | 101 | 46 | 19 | 24 |
| 101-250 | 43 | 20 | 16 | 20 |
| 251-500 | 47 | 21 | 20 | 26 |
| 501-1.000 | 20 | 9 | 13 | 17 |
| 1.000tik gora | 8 | 4 | 10 | 13 |
| Guztira | 219 | 100 | 78 | 100 |

* Jabe bera duten ikastetxetako ikasleak batu dira

1.000 ikasletik gorako ikastetxe publiko batek ere ez du lehen hezkuntza ematen.

Ehundik behera ikasle dituzten ikastetxe publikoetatik 45ek ez du 25 ikasle baino gehiago. 45 horietatik, hogeitan 10 ikasle baino gutxiago dago.

1.000 ikasletik gorako 10 ikastetxe pribatuetatik bitan bakarrik ez dute lehen hezkuntzarik ematen.

25na ikasle baino gehiago ez dituzten 4 ikastetxe pribatuetatik, 3 eskualde ez euskalduneko ikastolak dira eta berezitasunak dituzte.

• Egun “Ongizatearen estatua”ri buruz ko eztabaida puri-purian dago, mendebaldeko ekonomiek harrapatu duten defizit handiak direla eta. Derragun estatuak zerbitzuak ematerakoan bete behar duen papera eta nola eman behar dituen ere auzian direla eta horrek eragin berezia duela hezkuntzaren alorrean.

• Irakaskuntzaren bilakaera ikusten badugu eta giza eta gauza baliabideen gaurko egoera aztertu, esan dezakegu hezkuntza-gutxienekoak beteta daudela, eta, beraz, egungo arazoak, kudeaketa, baliabideak hobeto erabiltzea, kalitatea hobetzea eta abarri buruzkoak direla.

## VI. ITUNAK ETA DIRULAGUNTZAK.

Ondoren, labur azalduko dugu dirulaguntzek Nafarroako azken aurrekontuetan izan dituzten kopuruak. Hemendik aurrera, itunak aipatzen ditugunean itunak berak eta dirulaguntzak hartuko ditugu kontuan.

Horra irakaskuntza pribatuko unitateen bilakaera:

Unitateak

| Ikasturtea | Haur | Lehen | DBH | BBB/UBI | L.H. I | L.H. II. | Berezia | Bestelak. | Laguntza** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 90-91 | 271 | 881 | | 160 | 69 | 42 | 19 | | |
| 91-92 | 276 | 870 | | 167 | 68 | 50 | 21 | 71 | Irak.+25 Int. U |
| 92-93 | 274 | 865 | | 168 | 68 | 54 | 22 | 73 | +25 |
| 93-94 | 275 | 839 | | 165 | 68 | 63 | 19 | 94 | +23 |
| 94-95 | 273 | 809 | | 166 | 67 | 63 | 18 | 120 | +23 |
| 95-96 | 266 | 566 | 165* | 163 | 66 | 64 | 19 | 166,5 | +23 |

* O.H.O.ko 7. eta 8. mailako 9 ikasgela gehiago dago.

** Laguntzeko irakasleak eta integrazio ikasgelak sartu dira.

1995/96 ikasturteko 166,5 irakasleak honela banatzen dira:

| | |
|---|---|
| 107 | Laguntzeko irakasleak (krisialdian diren zentroak) +zuzendaritza |
| 5 | Orientatzaileak |
| 7,5 | Euskara irakasleak |
| 2 | Logopedak |
| 4 | Jagoleak |
| 15 | Premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak |
| 6 | Sindikatu-liberatuak |
| 20 | 1996ko irailean berriro sartuko diren irakas leen ordezkoak |

Laguntzeko irakasleei buruz esan behar da ez dagoela ikastetxeen arteko banaketa arautzen duen zerik, aitzitik, negoziatu egiten da "krisian dauden ikastetxe"etako soberakin guztiak lanean jartzeko eta Departamentuak egiten du banaketa.

Unitate horiei dirulaguntza emateko erabili diren baliabideak:

| | Urtea | | | |
|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntza mota | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 |
| Haur hezkuntzako 2. zikloa | 974.864.344 | 1.054.454.955 | 1.119.226.908 | 1.154.586.492 |
| O.H.O eta lehen H. | 4.951.196.907 | 4.927.733.147 | 4.436.208.887 | 4.548.125.124 |
| B.B.B. | 1.072.896.201 | 1.084.026.840 | 1.165.561.096 | 1.214.839.690 |
| U.B.I. | 20.990.520 | | | |
| L.H. I | 255.633.107 | 387.133.097 | 597.178.656 | 577.949.997 |
| L.H. II | 205.092.129 | 269.660.610 | 456.614.062 | 475.538.261 |
| Hezkuntza berezia | 87.605.628 | 133.169.847 | 189.060.975 | 191.690.388 |
| Guztira | 7.568.278.836 | 7.856.178.496 | 7.963.850.584 | 8.162.729.952 |

Ikastetxe batzuetarako izendun dirulaguntzak ere badira

1995eko gastuak 1994/95 ikasturteko ikasleekin alderatuz gero (gogoan izan ikasturte bateko bi aurrekontu-ekitaldi hartzen dituela), ateratzen da:

| | |
|---|---|
| Dirulaguntzak, guztira | 8.162.792.952 |
| Ikasleak, guztira (U.B.I.koak barne) | 37.945 |
| Ikasleko batez besteko teorikoa | 215.121 |
| Ikasgelako batez besteko teorikoa (25 ikasle) | 5.378.025 |
| Ikasgelako batez besteko teorikoa (30kasle) | 6.453.630 |

Horra ikasgelako benetako moduluak hainbat urtetan:

| | Urtea | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Irakaskuntza mota | 1992 | 1993 | 1994 | 1995 | 1996 | Urteko aldaketaren % |
| Haur hezkuntzako 2. zikloa | 3.531.693 | 3.814.228 | 4.119.366 | 4.263.544 | 4.465.455 | 6,04 |
| O.H.O eta lehen hezkuntza | 4.480.955 | 4.724.089 | 4.836.212 | 5.044.329 | 5.297.574 | 4,27 |
| B.B.B. eta U.B.I. | 6.906.996 | 7.269.369 | 7.490.478 | 7.515.693 | 7.935.361 | 3,53 |
| L.H. I | 7.931.754 | 8.348.820 | 8.613.828 | 8.856.068 | 9.252.448 | 3,93 |
| L.H. II | 7.824.308 | 8.237.483 | 8.498.115 | 8.533.990 | 8.926.498 | 3,35 |
| DBH. Lehen zikloa | | | 5.564.464 | 6.267.781 | 6.561.655 | 8,59 |
| DBH. Bigarren zikloa | | | | | 8.070.200 | |
| Hezkuntza berezia | | | | | | |
| O.H.O | | | | | | |
| Psikikoak | 5.589.478 | 6.302.955 | 7.440.288 | 7.860.221 | 8.288.235 | 10,35 |
| Fisikoak | 8.643.094 | | | | | |
| Nahaste handiak | 6.761.848 | 6.696.408 | 6.926.679 | 7.255.124 | 7.643.527 | 3,11 |
| L.H. | | | | | | |
| Psik. eta nahaste handiak | 9.379.304 | 12.066.571 | 13.464.122 | 13.565.690 | 14.293.010 | 11,11 |
| Fisikoak | 10.415.348 | | | | | |

Moduluon kopuruen banakaketak aldaketa oso txikiak izan ditu urteotan, irakaskuntza-mailen arabera, bain orokorrean esan daiteke haren banaketa portzentuala hurrengoa dela:

| | |
|---|---|
| Langile gastuak eta gizarte-zamak | 72 |
| Bestelako gastuak | 16 |
| Gastu aldakorrak | 12 |
| Guztira | |

Moduluen benetako jardunari buruz, aurreko txostenean esandakoa gogoratu, alegia, OHOn aldea dagoela ikasgelako benetako kobraketaren eta modulu teorikoaren artean, ordaintze-kontzeptu aldagarrien ondorioz.

Irakaskuntzaren doakotasunarentzako modulua nahikoa ote den, ikus VIII. atala.

Hezkuntza Ministerioak ezarri zituen moduluen zenbatekoa eta Nafarroak “ondorengotzan” hartu zuen transferentziak jaso zituenean. DBH ezarriko zela eta azterlanak egin dira eguneratzeko, hezkuntza horrek ekarri dituen beharrizanen arabera. Ikastetxeen kostuei buruzko azterlan zehatzen berririk ez dugu.

## VII. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK ETA GUTXIENGO ETNIKOAK.

Atal honetan aurkeztuko ditugu hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eta gutxiengo etnikoetakoen eskolatze datuak.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak honela eskolatu dira:

| Ikastetxeak | Haurrak | Lehen h. | Guztira | Ehunekoa | Bat. Best. | Guztira | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoak | 157 | 276 | 433 | 75 | 221 | 654 | 79 |
| Pribatuak | 37 | 104 | 141 | 25 | 30 | 171 | 21 |
| Guztira | 184 | 380 | 574 | 100 | 251 | 825 | 100 |

Kopuruaren aldetik garrantzirik handiena duen herria hartzen badugu, Iruñea alegia, horra datuak:

| Ikastetxeak | Haurrak | Lehen h. | Guztira | Ehunekoa | Bat. Best. | Guztira | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoak | 84 | 132 | 216 | 67 | 63 | 279 | 67 |
| Pribatuak | 30 | 77 | 107 | 33 | 29 | 136 | 33 |
| Guztira | 114 | 209 | 323 | 100 | 92 | 415 | 100 |

Horretaz gain, 265 ikasle eskolatu dira ikastetxe berezietan. Horra banaketa:

| | |
|---|---|
| Zentro publikoetan | 72 |
| Zentro pribatuetan | 161 |
| Burlatako Andra Mari zentroan | 32 |

Laburbilduz:

• 265 ikaslek hezkuntza berezia jasotzen du ikastetxe berezietan.

• Premia bereziak izanik gainerako ikasleekin batera ari direnak 825 dira. 89.703 ikasleak kontuan hartuz gero, ehuneko 0,9 dira.

• Horietatik ehuneko 79 ikastetxe publikoetan eskolatu dira eta ehuneko 21 pribatuetan. Iruñea aipatzen baldin badugu, ehuneko 67 publikoetan eta ehuneko 33 pribatuetan.

Gutxiengo etnikoez denaz bezainbatean, horra:

| Ikastetxeak | Haurrak | Lehen h. | Guztira | Ehunekoa | Bat. Best. | Guztira | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoak | 239 | 620 | 859 | 83 | 85 | 944 | 84 |
| Pribatuak | 68 | 103 | 171 | 17 | 9 | 180 | 16 |
| Guztira | 307 | 723 | 1.030 | 100 | 94 | 1.124 | 100 |

Iruñean, berriz:

| Ikastetxeak | Haurrak | Lehen h. | Guztira | Ehunekoa | Bat. Best. | Guztira | Ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoak | 66 | 187 | 253 | 82 | 15 | 268 | 81 |
| Pribatuak | 14 | 40 | 54 | 18 | 7 | 61 | 19 |
| Guztira | 80 | 227 | 307 | 100 | 22 | 329 | 100 |

Laburbilduz, gutxiengoetakotzat jotako 1.124 ikasleetarik, guztien ehuneko 1,25, alegia, ehuneko 84 sare publikoan eskolatu dira eta ehuneko 16 pribatuan. Iruñea aintzat hartuz gero, ehuneko 81 eta 19, hurrenez hurren.

Ikasleok irakaskuntza jasotzen duten zentroetan egiten duten ehunekoa kontuan hartuz gero, ateratzen da:

| | Haur eta lehen h., D.B.H. | | | | D.B.H. | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikastetxeak | Ikastetxe Kop. | Ikasleak, guztira | Gutxiengoetako ikasleak | Ehunekoa | Ikastetxe Kop. | Ikasleak, guztira | Gutxiengoetako ikasleak | Ehunekoa |
| Publikoak | 88 | 18.002 | 859 | 4,77 | 24 | 3.466 | 85 | 2,45 |
| Pribatuak | 31 | 7.046 | 171 | 2,42 | 3 | 420 | 9 | 2,14 |
| Guztira | 119 | 25.048 | 1.030 | 4,11 | 27 | 3.886 | 94 | 2,41 |

Edonola ere, aipatu behar da ikastetxeen arteko banaketa asko aldatzen dela. Azpimarragarriak dira “Unzu txiki” eta “San Francisco” ikastetxeak, Iruñekoak, gutxiengo etnikoetako ikasleak ehuneko 100 eta 75 dira, hurrenez hurren.

## VIII. KOSTUEN AZTERKETA ETA ITUN MODULUAREKIKO ALDERATZEA.

Bi ikastetxeko irakaskuntza-kostuak aztertu ditugu horien emaitzak itun-moduluarekin aldera-

tzeko asmoz. Bata itunpekoa da, San Fermin Ikastola; bestea titularitate publikoa duen itunpekoa, Iruñeko Udal Ikastola.

Iruñeko Udaleko “ikastetxe publikoak” izeneko aurrekontu-programako gastuak ere aztertu ditugu. Udalak haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeei finantzatzen dizkien ohiko gastu guztiak ageri dira hor, Udal Ikastolakoak salbu.

Emaitzak aztertu aurretik, hurrengoak hartu behar dira gogoan:

• Oso taxu desberdina erakusten dute bi ikastetxeek. San Fermin Ikastolak haur hezkuntzatik (3 urte) U.B.I.ra bitarteko irakaskuntza ematen du, D ereduan. 1400 ikasle inguru ari da bertan ikasten, hasieran horretarako ez ziren lokaletan.

Udal Ikastolan 1.300 ikasle dago, haur eta lehen hezkuntzan, D ereduan ere. Egia esan, ikastola hiru zentrotan banatzen da. Horietako bi lehenago ere ikastetxe ziren, bestea ikastolaren egoitzarako eraiki da.

Egitura ezberdinek datuak homegeneotu beharra dakarte, alderaketa erraztuko bada, hori berez dator.

• Inolaz ere ez ditugu erabilitako datuak ikuskatu (auditatu). 1994-95 ikasturtekoak erabili dira San Fermin Ikastolan eta 1995ekoak gainerakoetan.

San Fermin Ikastolak kontabilitate egoera-orriak eta ikasle kopurua, irakasleak eta abarri buruzko datuak eman zizkigun.

Udal Ikastolako datuak ateratzeko Iruñeko Udalak duen izen bereko aurrekontu programara jo dugu.

• Kostuen kontabilitaterik ezean, inputazio eta balioespenak egin behar izan ditugu, izan daitezkeen aldeek emaitzak itxuraldatzen ez dituzten arren, gure ustez.

• Teorian itun-moduluetan sartzen diren ohiko gastuak baino ez ditugu kontuan izan, eta alde batera utzi ditugu inbertsioak edo amortizazioak, edota eskolaz kanpoko jarduéretatik eratorriak. Hau da, ez dira ustiapen kontua osatzen duten gastu guztiak hartu.

• Ikasgelako ikasle kopuru ezberdinak ekar dezakeen itxuraldaketa saihesteko, ikasgelako kostuen arabera egingo dugu azterketa.

Haur eta lehen hezkuntzako datuak baino ez ditugu aztertuko.

Horra gure azterketaren ondoriozko datuak:

A) San Fermin Ikastola.

Moduluan teorikoki aurreikusten ez diren gastuak albo batera utzita, hau da, amortizazioak, inbertsioak eta konponketak, eta zuzendaritzaren eta orientatzaileen gastuen eragina deskontatuta, baita ikastolek dituzten hitzarmen ezberdinen ondoriozko aldeena ere, kostuen eta jasotako dirulaguntzaren arteko aldea 17 milioi da haur hezkuntzan eta 25 OHOn. Ikasgelako 1,7 milioi eta 960.000 pezeta egiten du horrek haur hezkuntzan eta OHOn, hurrenez hurren.

Haur hezkuntzan, Aurrekontuei buruzko Foru Legeak baimena ematen du familiei kobraketa egiteko, ikasgelako 790.000 pezeta joko lukeen kopuruan.

Aldeak irakasleen gastuetan eta gainerakoetan ere ematen dira. Hartara, jotzen baldin badugu hezkuntzako bi mailotan beste gastu batzuetarako den modulu-zatia ehuneko 16 dela, ikasgelako aldeak honela banatuko lirateke:

| | Ehunekoa | |
|---|---|---|
| | Haur h. | Lehen h. |
| Irakasleen gastuak | 70 | 60 |
| Bestelakoak | 30 | 40 |

Maila horietarako ikasle ratioak dira ikasgelako 1,18 irakasle haur hezkuntzan eta 1,32 OHOn. Alorreko batez-bestekoekin pareka daitezke, hots, haur hezkuntza publiko eta pribatuan 1,07 eta 1,06, hurrenez hurren; lehen hezkuntzan 1,65 eta 1,47ra igotzen dira, bi sareetan.

B) Udal ikastola

Ikasgelako guztizko gastuei gagozkielarik, moduluaren zenbatekoa baino bi milioi pezeta gehiago dira, gutxi gorabehera. Kontuan izan behar da kasu berezia dela, ez baitago nomina delegaturik, moduluaren zenbatekoa osorik ordaintzen zaiola udalari.

C) Iruñeko Udalaren menpeko ikastetxe publikoen gastuak (udal ikastola kenduta).

Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Gobernuak nomina eta gastu batzuk (materialak) ordaintzen dituen bitartean, udalek eskoletako ohiko gastuak ordaintzen dituzte (garbiketa, hornidurak, gelazainak, eta abar).

Moduluen banakaketan, VI. atalean ikusi dugunaren arabera, ehuneko 16 jotzen da gastu horietarako. Gastuoi dagokien kopurua ez da ikasgelako 800.000 pezeta baino gehiago.

Iruñeko Udalaren kontabilitate-datuetatik ateratzen da gastuon munta moduluak aipatzen duena baino gehiago dela, kontuan hartuz, behintzat, eskola publikoetan izandako gastuak, funtzionarioen soldatari gizarte segurantzaren zati teorikoa gehituz, gogoan izanik ikastetxeotan eskola ordutegitik kanpoko jarduketak direla.

Ez dugu moduluaren guztizko kopurua irakaskuntza publikoaren gastuekin alderatu, moduluaren zatirik handiena langile-gastuei buruzko izanik, haien ordainketa sistema ezberdina delako. Hartara, jotzen baldin badugu irakasleen batezbesteko aintzinatasuna 16 urte dela, enplegatu publikoen aldeko diferentzia 380.000 pezeta da haur eta lehen hezkuntzan eta 600.000 pezeta BBBn. Beste alde batetik, kontuan hartu beharko litzateke funtzionarioen gizarte segurantza sistema bereziak kostu txikiagoa duela egun hezkuntza administrazioarentzako.

## IX. 1995/1996 IKASTURTEKO HEZKUNTZA BARRUTIAK. BALIABIDEEN AZTERKETA.

Nafarroako hezkuntza aztertuko dugu atal honetan. Orokortasunak iruzkinduko ditugu lehenbizi, gero barruti bakoitzaren azterketa laburra egiteko.

### IX.1. AZTERKETA OROKORRA.

18 eskola-barruti ezarri dira Nafarroan irakaskuntza antolatzeko. Ondorengo mapan ikus daitezke. Gure azterketan, ordea, 12 jarri ditugu, Iruñerria osatzen duten zazpi barrutiak batean bildu ditugulako, Iruñerriak multzo bat osatzen duela uste dugunez gero. Hala ere, beste barruti bat ere har daiteke, alegia, Iruñerriko barrutietan sarturik, berez eskualde horretakoak ez diren ikastetxeek osatuko luketena.

Ondorengo laukian ikus daitezke barrutien nolakotasunik behinenak eta sare publikoaren eta pribatuaren datuen zatiketa.

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutiak | Publ. | Prib. | Guztira | Publ. | Prib. | Guztira | Publ. | Prib. | Guztira | Publ. | Prib. | Guztira | Publ. | Prib. | Guztira | Publ. | Prib. | Guztira |
| 1. Sakana-Burunda | 9 | 6 | 15 | 1.658 | 907 | 2.565 | 87 | 45 | 132 | 164 | 71 | 235 | 19 | 20 | 19 | 1,89 | 1,58 | 1,78 |
| 2. Baztan | 26 | 1 | 27 | 2.012 | 122 | 2.134 | 121 | 4 | 125 | 212 | 10 | 222 | 17 | 31 | 17 | 1,75 | 2,50 | 1,78 |
| 3. Corella | 6 | – | 6 | 1.928 | – | 1.928 | 88 | – | 88 | 142 | – | 142 | 22 | – | 22 | 1,61 | – | 1,61 |
| 4. Lizarra | 18 | 8 | 26 | 2.958 | 1.904 | 4.862 | 140 | 82 | 222 | 261 | 130 | 391 | 21 | 23 | 22 | 1,86 | 1,59 | 1,76 |
| 5. Azkoien-Marcilla | 17 | – | 17 | 3.490 | – | 3.490 | 165 | – | 165 | 275 | – | 275 | 21 | – | 21 | 1,67 | – | 1,67 |
| 6. Irunberri-Zangoza | 10 | 2 | 12 | 1.179 | 182 | 1.361 | 65 | 12 | 77 | 123 | 13 | 136 | 18 | 15 | 18 | 1,89 | 1,08 | 1,77 |
| 7. Leitza | 8 | – | 8 | 699 | – | 699 | 47 | – | 47 | 79 | – | 79 | 15 | – | 15 | 1,68 | – | 1,68 |
| 8. Lodosa-San Adrián | 14 | 6 | 20 | 2.984 | 500 | 3.484 | 138 | 27 | 165 | 231 | 36 | 267 | 22 | 19 | 21 | 1,67 | 1,33 | 1,62 |
| 9. Tafalla | 14 | 3 | 17 | 2.612 | 821 | 3.433 | 131 | 35 | 166 | 233 | 46 | 279 | 20 | 23 | 21 | 1,78 | 1,31 | 1,68 |
| 10. Tutera | 21 | 12 | 33 | 6.856 | 2.973 | 9.829 | 310 | 112 | 422 | 550 | 146 | 696 | 22 | 27 | 23 | 1,77 | 1,30 | 1,65 |
| 11. Bera | 7 | 3 | 10 | 732 | 336 | 1.068 | 45 | 18 | 63 | 91 | 27 | 118 | 16 | 19 | 17 | 2,02 | 1,50 | 1,87 |
| 12. Iruñerria | 62 | 70 | 132 | 24.907 | 28.192 | 53.099 | 1.062 | 992 | 2.054 | 2.152 | 1.643 | 3.795 | 23 | 28 | 26 | 2,03 | 1,66 | 1,85 |
| 13. Gainerakoak | 35 | 1 | 36 | 2.006 | 81 | 2.087 | 142 | 5 | 147 | 201 | 11 | 212 | 14 | 16 | 14 | 1,42 | 2,20 | 1,44 |
| Guztira | 247 | 112 | 359 | 54.021 | 36.018 | 90.039 | 2.541 | 1.332 | 3.873 | 4.714 | 2.133 | 6.847 | 21 | 27 | 23 | 1,86 | 1,60 | 1,77 |

Ratio 1 = Ikaslea/ikasgela
Ratio 2 = Irakasleak/ikasgela

Koadroa azterturik honako hau ikus dezakegu:

• Sare pribatua Iruñerriko eta Tuterako barrutietara mugatzen da, ia-ia. Iruñekoan bakarrik dago ikasle eta ikastetxe gehiago pribatuan publikoan baino.

• Corella, Azkoien-Marcilla eta Leitzako barrutietan ez dago ikastetxe pribaturik eta beste hirutan ikastetxe pribatu bana besterik ez dago.

• Ikasgelako ikasle ratioa 21 da sare publikoan eta 27 pribatuan, ikastetxe publikoetan 14 eta 23 bitartean eta pribatuetan 15 eta 31 bitartean delarik.

• Ikasgelako ikasle ratioa 1,86 da sare publikoan eta 1,60 pribatuan, lehen kasu horretan 1,42 eta 2,03 bitartean mugitzen delarik eta bigarrenean 1,08 eta 2,50 bitartean.

• Aurreko datuetatik atera dugu ikasgelako ikasle eta irakasle kopuruekin zerikusia duten irakaskuntza baldintzak hobeak direla sare publikoan.




Orokorrean, aipatzekoak ere badira:

• Barrutiek dituzten aldeak, herri girokoak edo hirikoak diren, zabalera eta geografi eta komunikazio zehaztasunen arabera. Adibidea jartzeagatik, badira DBH behin-behinekoz ematen ari diren ikastetxeak 75 ikaslera iritzi gabe, beste batzuetan, 300 baino gehiago izanik ere, halakorik ez dutela.

• Duten neurria dela eta, etorkizuneko bideragarritasuna oso zail duten ikastetxeak ere badira.

• Hezkuntza ereduek taldeen neurrian duten eragina, barruti edo/eta ikastetxe txikietan batez ere.

**Ondorio orokor gisa,** ikasleak eta ikastetxeak birbanatzeko aukera ateratzen da, baliabideak hobeto erabili ahal izateko. Birrantolaketaren abantaila ekonomikoak bederen, agerikoak dira, baina hurrengo eragozpenak izan daitezke:

• Lokaletan eta ohiko gastuetan aurrezten denak garraioan eta, hala balitz, jantokietan gastatzen dena baino gehiago izan behar du. Hala ere, gogoan izan behar da irakaskuntzaren kostuaren ia hiru laurdenak langile gastuak direla. Hortaz, sobran diren irakasleak beste lanpostu batzuetan jartzeko edo jubilatzeko planik ezean, ez da kostu-murrizketarik izango.

• Gure azterlanean, pedagogiaren ikuspuntutik diogu, ez dugu azterketa edo doktrinarik aurkitu baieztatu ahal izateko lehen hezkuntza eraginkorrago dela eskola-kontzentrazioetan eskola unitarioetan baino, Nafarroan direnetako batzuk oso txikiak izan arren.

• Kontzentrazioak bultzatzeko edozein neurrik aurkako iritzia eragiten du, oro har, bi arrazoiengatik, funtsean: autobusez egin beharreko bidaia eta herria utzi beharra.

IX.2. BARRUTIEN AZTERKETA.

**IX.2.1 Sakana-Burunda.**

Altsasu dugu barrutiko gune nagusia eta eskualde euskaldunean dago. D eredua da nagusi haur eta lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan gutxienena bada ere.

1991/92 ikasturtean 1.710 ikasle zegoen sare publikoan eta 1.081 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 1.658 eta 907 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 1. Sakana-Burunda | 9 | 6 | 15 | 1.658 | 907 | 2.565 | 87 | 45 | 132 | 164 | 71 | 235 | 19 | 20 | 19 | 1,89 | 1,58 | 1,78 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 1.446 ikasle |
| A eredua | 1.079 ikasle |
| G eredua | 40 ikasle |

Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan baliabideak barreiaturik daude ikasle gutxi duten ikastetxe multzo handian. Gure ustez, teorian behintzat, litekeena da bi sareak berrantolatzea ikastetxe kopurua gutxitzeko: 5 edo 6 publikoan eta 1 edo bi pribatuan.

DBH bi ikastetxetan ematen zaie 351 ikasleri. BBB, UBI eta LH ikastetxe publiko bakarrean ematen dira, 40 ikasle dituen apaizgaitegia den arren.

**IX.2.2. Baztango barrutia.**

Bi gune geografiko ditu: Elizondo eta Doneztebe. Herri txikiak daude eta populazio gune barreiatuak (baserriak), komunikazio arazoak izaten direlarik. Donezteben bada kontzentrazio txiki bat, eta herri gehienek bere ikastetxeari eusten diote. D eredua da nagusi maila guztietan.

1991/92 ikasturtean 2.534 ikasle zegoen sare publikoan eta 99 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 2.012 eta 122 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 2. Baztan | 26 | 1 | 27 | 2.012 | 122 | 2.134 | 121 | 4 | 125 | 212 | 10 | 222 | 17 | 31 | 17 | 1,75 | 2,50 | 1,78 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 1.446 ikasle |
| A eredua | 580 ikasle |
| G eredua | 108 ikasle |

2.134 ikaslerendako 27 ikastetxe izateak, alegia, batez-beste, 79 ikasle ikastetxeko, argi eta garbi erakusten dizkigu barrutiaren nolakotasunak.

Haur hezkuntzan azpimarratu behar da 350 ikasleak 25 ikasgelatan banatzen direla, ratioa 14 ikasle delarik, barruti guztietako txikiena, baina ikasgelako irakasle ratioa ere baxuena da, 1 alegia.

Lehen hezkuntzan gauza bera gertatzen da.

Barruti honetan, litekeena da ikasleak bi ikastetxetan biltzeko berrantolaketa, eskualde urrunenetako ikasleen zalantzarekin. Diren ratioak ikusita, ordea, kontuan hartzeko moduko aurrezkirik emango litzatekeen aztertu behar da, patxadan. Gure ustez, alde pedagogikoa garrantzizkoagoa da kasu honetan, lehen hezkuntzako sei ikasturtetako ikasleak ikasgela berean biltzen dituzten ikastetxe asko dagoelako, egun.

DBH Doneztebeko eta Lekarotz-Elizondoko ikastetxetan ematen da. Zugarramurdin ere lehen zikloa ematen zaie, behin-behinekoz, 8 ikasleri.

BBB eta UBI bi ikastetxe publikotan ematen dira, etorkizunean ikasleak hizkuntz ereduaren arabera banatuko direlarik. Lanbide heziketa, D ereduan baino ez da ematen, bai ikastetxe publikoan, bai pribatuan.

**IX.2.3. Corellako barrutia.**

Corella, Cintruénigo eta Fiteroko herriak biltzen ditu, eta oso erraz komunika daitezke elkarrekin.

Ikastetxe pribaturik ez duen barrutietako bat da.

1991/92 ikasturtean 1.802 ikasle zegoen sare publikoan eta 20 pribatuan, eta 1995/96 ikasturtean, 1.928 ikasle zegoen ikastetxe publikoetan.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 3. Corella | 6 | – | 6 | 1.928 | – | 1.928 | 88 | – | 88 | 142 | – | 142 | 22 | – | 22 | 1,61 | – | 1,61 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Ikasle guztiak ari dira G ereduan.

Ratio onargarriak dituen barrutia dugu eta ezin daiteke bestelako jarduketarik egin.

**IX.2.4. Lizarrako barrutia.**

Oso barruti zabala da, 51 udalerri hartzen baititu, 150 populazio gunerekin. Bi gune nagusi ditu: Urantzia eta Lizarra, beste 13 herritan ere ikastetxerik dagoen arren. Barrutiko zati bat alde mistokoa da eta bestea ez euskaldunekoa.

1991/92 ikasturtean 3.305 ikasle zegoen sare publikoan eta 2.278 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 2.958 eta 1.904 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 4. Lizarra | 18 | 8 | 26 | 2.958 | 1.904 | 4.862 | 140 | 82 | 222 | 261 | 130 | 391 | 21 | 23 | 22 | 1,86 | 1,59 | 1,76 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 733 ikasle |
| A eredua | 464 ikasle |
| G eredua | 3.665 ikasle |

Alde handia ageri da bi sareen artean haur eta lehen hezkuntzari bagagozkie. Publikoak ikasle gutxiago du, ikasle eta ikasgela gehiago. Beraz, ikastetxeetako datuak aztertu ondoren ateratzen da:

• 15 publikoetatik, 4k baino ez dute 100 ikasle baino gehiago; 5ek 25 eta 100 ikasle bitartean; eta 6k 25 ikasle baino gutxiago.

• Ikastetxe pribatu guztiek dute 100a ikasle baino gehiago.

• Ikasle gehien dituzten ikastetxeek ikasgelako ikasle ratio handiagoa dute. Orobat ikasgelako irakasle ratioa ere.

Gure ustez, sare publikoko sei ikastetxek bideragarritasun arazoa izan dezakete epe laburrean, eta hiruk epe ertainean. Pribatuan batek izan dezake horrelakorik.

Bigarren hezkuntzan hiru ikastetxe publiko eta bi pribatu dira eta erakusle onargarriak dituzte; Zudairen, ordea, behin-behinekoz ematen da eta 15 ikasle besterik ez dago.

**IX.2.5. Azkoien-Marcilla barrutia.**

Erdi mailako 14 herri hartzen dituen barrutia dugu, elkarrekin ongi estekatuta daudelarik. Bigarren hezkuntzako ikastetxea dago Marcillan, Zarrakaztelun eta Azkoienen.

Ikastetxe pribaturik ez duen barrutietako bat da.

1991/92 ikasturtean 3.830 ikasle zegoen sare publikoan eta 47 pribatuan, eta 1995/96 ikasturtean, 3.490 ikasle zegoen ikastetxe publikoetan.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 5. Azkoien-Marcilla | 17 | – | 17 | 3.490 | – | 3.490 | 165 | – | 165 | 275 | – | 275 | 21 | – | 21 | 1,67 | – | 1,67 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| A eredua | 504 ikasle |
| G eredua | 2.986 ikasle |

Barrutian lehen hezkuntzako 14 ikastetxe dago. Horietarik 3k 50na ikasle baino gutxiago ditu, eta beste bik 50 eta 100 ikasle bitartean. Ikastetxeoi ordezkoak edo irtenbideak bilatu beharra erakus dezakete aipatu kopuruek.

DBHn hiru ikastetxe dago eta beste bi behin-behinekoz irekitzeko baimena eman da 1996/97 ikasturtean. BBBn eta LHn ikastetxe bana dago.

**IX.2.6. Irunberri-Zangoza barrutia.**

Zangoza hiriaren inguruan taxutu den barrutia dugu, hantxe baitago bigarren hezkuntzako ikas-

tetxea. Irunberrin bada lanbide heziketako beste bat. Bi ikastetxe pribatu ditu, D ereduko irakaskuntza ematen duten ikastolak, alegia.

1991/92 ikasturtean 1.452 ikasle zegoen sare publikoan eta 127 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 1.179 eta 182 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 6. Ilunberri Zangoza | 10 | 2 | 12 | 1.179 | 182 | 1.361 | 65 | 12 | 77 | 123 | 13 | 136 | 18 | 15 | 18 | 1,89 | 1,08 | 1,77 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 182 ikasle |
| A eredua | 208 ikasle |
| G eredua | 971 ikasle |

Haur eta lehen hezkuntza 8 ikastetxe publikotan ematen da, A eta G ereduetan; eta bi ikastoletan, D ereduan.

Ikastetxe publikoetan, lauk 15na ikasle baino gutxiago du, eta beste hiruk ez du 75na ikasleko kopurua gainditzen. Bideragarritasun arazoa izan daitekeela uste dugu.

Azpimarratzekoa da Irunberrik duen egoera, ikasgelako 11 ikasle eta 2 irakasle ratioak baitira ikastetxe publikoan, 63 ikaslerekin, 36 ikasleko ikastolaz gain.

Bigarren hezkuntzan aipatu behar da 1996/97 ikasturtean DBHri ekin zaiola Zangozako ikastolan, D eredua aukeratu duten ikasleei jarraibidea emateko.

### IX.2.7. Leitzako barrutia.

Barruti honetan herri txikiak daude eta populazio gune barreiatuak, komunikazio arazoak izaten direlarik. Leitzak du, herri nagusia izanik, bigarren hezkuntzako ikastetxea. Goizuetan eta Betelun DBHko lehen zikloa ematen da, eta badago bigarren zikloa Gipuzkoan egiteko aukera.

Eremu euskaldunean dago eta D eredua da nagusi. Ez dago ikastetxe pribaturik.

1991/92 ikasturtean 854 ikasle zegoen sare publikoa, 1995/96 ikasturtean 699 ziren bitartean.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 7. Leitza | 8 | – | 8 | 699 | – | 699 | 47 | – | 47 | 79 | – | 79 | 15 | – | 15 | 1,68 | – | 1,68 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 641 ikasle |
| A eredua | 19 ikasle |
| G eredua | 39 ikasle |

Haur eta lehen hezkuntzako 480 ikasleek 5 ikastetxetan dihardute. Horietako batek 8 ikasle besterik ez du, bideragarritasun zalantzazkoa, beraz. Aresokoak, 25 ikasle, arazoak ditu ikasgelak egokiak ez direlako.

DBH eta batxilergoa osorik ematen dira Leitzan, DBHko lehen zikloa beste bi herritan ematen den bitartean.

### IX.2.8. Lodosa-San Adrián barrutia.

Elkarrekin ondo komunikatuta dauden 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko herriak hartzen ditu barruti honek. Bigarren hezkuntzako bi institutu ditu eta DBH hiru herritan ematen da.

Eskualde ez euskalduneko barrutia izanik, hiru ikastola ditu eta bi ikastetxe pribatu gehiago, horietako batek haur hezkuntza besterik ematen ez duela.

1991/92 ikasturtean 3.293 ikasle zegoen sare publikoan eta 608 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 2.984 eta 500 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 8. Lodosa-San Adrián | 14 | 6 | 20 | 2.984 | 500 | 3.484 | 138 | 27 | 165 | 231 | 36 | 267 | 22 | 19 | 21 | 1,67 | 1,33 | 1,62 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 133 ikasle |
| A eredua | 341 ikasle |
| G eredua | 3.010 ikasle |

Haur eta lehen hezkuntzan ratio onargarriak direla esan daiteke, komunitateko batez-bestekoa gogoan hartuz gero. Hala ere, epe erdira arazoak izan daitezke 75 ikaslera iristen ez diren bi ikastetxe publikoekin.

Irakaskuntza publikoan ematen ez den D ereduko hezkuntza-eskariari erantzuten diote hiru ikastolek. Neurri ezberdinekoak dira eta baten batek bideragarritasun arazoa izan dezake.

Azpimarratzekoa de Mendaviako kasua, non haur hezkuntza ikastetxe pribatuak ematen duen, eta ez publikoak.

Bigarren hezkuntzari bagagozkio, azpimarratzekoa da Vianako ikasleak Logroñora joan daitezkeela ikastera, Errioxako herri batzuetakoek Lodosan ikas dezaketen bitartean.

**IX.2.9. Tafallako barrutia.**

Neurri ezberdineko herriek osatzen dute Tafalla gune nagusi duen barruti hau. Tafallan bada kontzentrazio txiki bat. Oro har, ez dago komunikazio arazorik, Uxueko aldean salbu.

1991/92 ikasturtean 2.655 ikasle zegoen sare publikoan eta 1.165 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 2.612 eta 821 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 9. Tafalla | 14 | 3 | 17 | 2.612 | 821 | 3.433 | 131 | 35 | 166 | 233 | 46 | 279 | 20 | 23 | 21 | 1,78 | 1,31 | 1,68 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 235 ikasle |
| A eredua | 592 ikasle |
| G eredua | 2.606 ikasle |

Haur eta lehen hezkuntzan 12 ikastetxe publiko eta 2 pribatu dago. Sare publikoko ratioek ikasgelako ikasle gutxiago eta ikasle gehiago erakusten dute pribatua baino. Hiru ikastetxek bideragarritasun arazoa izan dezakete epe laburrean, ez baitira 15na ikaslera iristen. D eredua Tafallako ikastolan baino ez da ematen.

DBHrako bi ikastetxe publiko eta pribatu bat dago, eta 1996/97 ikasturtetik aurrera D ereduan ekingo zaio irakaskuntza horri, ikastolan.

Batxilergoa eta lanbide heziketa ikastetxe publikoetan baino ez dira ematen.

**IX.2.10. Tuterako barrutia.**

Bigarren barrutia dugu, ikasle kopuruari begiratuz gero, eta Tuteran du gune nagusia, non bigarren hezkuntzako bi institutuak dauden. Azpimarratzekoa da barruti honetako DBH Tuteran biltzeko joera dagoela.

Erdi mailako herriak ditu, 1.000 eta 3.000 biztanle artekoak, eta Tutera, 25.000 baino gehiago.

1991/92 ikasturtean 7.364 ikasle zegoen sare publikoan eta 3.473 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 6.856 eta 2.973 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 10. Tutera | 21 | 12 | 33 | 6.856 | 2.973 | 9.829 | 310 | 112 | 422 | 550 | 146 | 696 | 22 | 27 | 23 | 1,77 | 1,30 | 1,65 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 87 ikasle |
| A eredua | 675 ikasle |
| G eredua | 9.607 ikasle |

Barruti honetan ikasleei buruzko datuen proiekzio erraza egin dugu 2.000 urtera arte. Emaitza:

• 1995/96 ikasturtearen eta 1999/2000 ikasturtearen bitartean ikasleen kopurua, osotara hartuta, ehuneko 12 jaitsiko da.

• Jaitsiera ez da neurri berean gertatzen maila ezberdinetan, eta handiagoa da lehen hezkuntzan, ehuneko 19ra hel baitaiteke.

• Bigarren hezkuntzako guztizko jaitsiera ehuneko 10era hel daiteke, osagarri ezberdinekin, batxilergoa eta lanbide heziketa jaitsi egiten baitira eta DBH nabarmen igoten. Bilakaera lojikoa da kontutan hartzen bada hezkuntza-sistemaren aldaketa. DBHn eduki berriak sartu beharrak, ordea, bigarren hezkutzarendako baliabide gehiago eska dezake, ikasle kopuruak behera egin arren.

Haur eta lehen hezkuntza 17 ikastetxe publiko eta 9 pribatutan ematen da. Publikoetan, Fontellaskoak bideragarritasun arazoak izan ditzazke epe laburrean, 10 ikasle baitu, eta Monteagudokoak epe erdira, 36 ikasle baititu, azken horren kokagune geografikoa gogoan hartu behar den arren. Zentro pribatuetan, berriz, bi daude 50na ikasle baino gutxiago dutenak, eta uste dugu arazoak izan ditzazketela epe laburrean; beste bik epe ertainean izan dezakete bideragarritasun arazorik.

Bigarren hezkuntza Tuterara biltzeko aukera egin dute. Barruti honetan ditugu ikasgelako ikasle ratiorik handienak. Batxilergoan eta lanbide heziketa ematen dituzten bi ikastetxe publikoek, DBH ere ematen dutenez, 1.500 eta 2.000 ikasle bitartean dituzte. Horrek, arazoak ekar ditzake LOGSEren zenbait eskakizun betetzeko, hala nola, arreta pertsonalizatua, aniztasuna, eta abar.

**IX.2.11. Berako barrutia.**

Nafarroako eskualde euskalduneko barrutia dugu eta Bidasoa errekako bost udalak hartzen ditu. Herri guztiek dute lehen hezkuntzako ikastetxe publikoa, bigarren hezkuntzako Beran dagoelarik. Arantzakoari, berriz, DBHko lehen zikloa emateko behin-behineko baimena eman zaio. Bi ikastola eta beste ikastetxe pribatu bat ere badira.

Eskualdeko berezitasunik nabarmenena dugu populazio barrutiak duen garrantzia.

1991/92 ikasturtean 889 ikasle zegoen sare publikoan eta 573 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 732 eta 336 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren datuak, lehen ikusi bezala:

| | Ikastetxeak | | | Ikasleak | | | Ikasgelak | | | Irakasleak | | | Ratio-1 | | | Ratio-2 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Barrutia | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira | Pub. | Prib. | Guztira |
| 11. Bera | 7 | 3 | 10 | 732 | 336 | 1.068 | 45 | 18 | 63 | 91 | 27 | 118 | 16 | 19 | 17 | 2,02 | 1,50 | 1,87 |

5. eraskinean sartu dugu datuon banakatzea irakaskuntza-mailaka.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 743 ikasle |
| A eredua | 239 ikasle |
| G eredua | 86 ikasle |

Lehen hezkuntzako bost ikastetxe publikoetatik bat ere ez da 100 ikaslera iristen, txikienean 34 ikasle dagoelarik.

Barruti honetan ikastetxeen berrantolamendua egin daiteke, a priori, teorian aukera bat baino gehiago delarik: barrutia bere osoan hartu sareak bereizi gabe, sare ezberdinen arabera berrantolatu. Edonola ere, kontuan izan behar da eskualde horretan ikasleek etxetik egin behar dituzten joanetorrien eragina. Egungo egoerarekiko aldeak, onetsitako aukeraren zorroztasunaren araberakoak lirateke, ondorioak garrantzizkoagoak izan daitezkeelarik pedagogiaren aldetik, ekonomiaren aldetik baino.

DBH Beran ematen da eta Arantzako ikastetxe publikoan. 1996/97 ikasturtean eutsi egin zaio herri horretan, 11 ikaslerekin, eta Berako ikastolan jarri da, 76 ikaslerentzako.

**IX.2.12. Iruñerriko barrutia.**

Lehen adierazi bezala, Iruñerriko barruti guztiak baterabildu egin ditugu, Iruñerria bat dela uste dugulako.

1991/92 ikasturtean 29.249 ikasle zegoen sare publikoan eta 31.699 pribatuan, 1995/96 ikasturtean 24.907 eta 28.192 ziren bitartean, hurrenez hurren.

Horra barrutiaren laburpena, sare publikoko udal ikastola barne:

| | Ikastetxeak | Ikasleak | Ikasgelak | Irakasleak | Ratio 1 | Ratio 2 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Sare publikoa | 62 | 24.907 | 1.062 | 2.152 | 23 | 2,03 |
| Sare pribatua | 70 | 28.192 | 992 | 1.643 | 28 | 1,66 |
| Guztira | 132 | 53.099 | 2.054 | 3.795 | 26 | 1,85 |

Beraz, komunitate osokoekin konparatuz gero:

| | Ikastetxea | Ikasleak | Ikasgelak | Irakasleak |
|---|---|---|---|---|
| Sare publikoa | 25% | 47% | 42% | 46% |
| Sare pribatua | 67% | 79% | 75% | 78% |
| Guztira | 37% | 59% | 53% | 56% |

Datuok berretsi egiten dute ikastetxe pribatuak Iruñerrian biltzen direla eta sare publikoa gainerako foru geografian zehar barreiatzen dela, barruti honetan ikastetxe publiko nahiko handiak diren arren.

Horra ikasleen kopurua ereduka:

| | |
|---|---|
| D eredua | 7.448 ikasle |
| A eredua | 3.181 ikasle |
| G eredua | 42.470 ikasle |

Hurrengo barrutiak sartu ditugu hemen:

• Burlata-Atarrabia-Uharte. Erroibar eta Esteribar barne.

• Txantrea-Antsoain-Berriozar. Basaburua eta Ultzama ibarrak hartzen ditu eta Piriniokoak, Erronkaritik Luzaidera.

• Erdialdea. Mendillorri, Noain, Beriain, Tiebas eta Elo

• Ermitagaña-Donibane. Irurtzun eta Lekunberriko aldea ere hartzen du.

• Iturrama-Etxabakoitz.

• Zizur. Gares, Zirauki eta Izarbeibar barne.

• Barañain.

Bi barruti ezberdin dira, ikus daitekeenez. Iruñerria hartzen du batek. Besteak, DBHrako Iruñerriko ikastetxeen menpe dauden herri txiki guztiak.

Barrutiko zentroez denaz bezainbatean, hurrengo zehaztasunak ikus daitezke, barrutia handia denez oso orokortzat hartu behar dira, baina:

• Ikastetxe publikoek eskariarik hurbilena hartzen dute, eskuarki. Pribatuak, ostera, gehienak Iruñeko erdialdean daudelarik, populazio guztira heltzen dira.

• Itunpeko ikastetxeez, gutxieneko salbuespenekin, esan daiteke arrazoizko neurria dutela.

• Publikoak barreiatuago daude. Ikastetxe batzuek ez dute ehun ikasle baino gehiago, beste batzuetan ikasgelako 10 eta 13 ikasle ratioak daude eta eskualderen baten ikasle gutxiko ikastetxeak zentroetako batean bildu dira.

• Datuen azterketaren ondorioz bideragarritasun arazoa somatu zaien ikastetxe batzuetan ikusten ahal da premia bereziak dituzten eta gutxiengokoak diren ikasleen ehuneko handiagoa.

• Oro har, erakuslerik onenak dituzten ikastetxe publikoak, azken bi hamarkadotan garatu diren eskualdeetan daude.

Orokorrean, ikastetxea ikaslearengana hurbiltzen du Administrazioak, eta populazioak azken urteotan izan duen bilakaeraren arabera, ikastetxe baten iraupena 35 urte inguru dela jo daiteke; beste alde batetik, ikastetxe pribatuek garraioa eta jantokiak jarriz saiatu dira ikaslea ikastetxera hurbiltzen.

• Aztertzen ari garen bi ratioak, ikasgelako ikasleak eta ikasgelako irakasleak, sare publikoaren aldekoak dira. Sare publikoko ikasleek baldintza hobeak dituzte, beraz, hasiera batean.

Barrutiaren gainerako aldea herri txikiek osatzen dute, komunikazio-zailtasunekin, sarritan. Badira epe laburrean bideragarritasun arazoa izan dezaketen ikastetxeak. Adibidez, Erron 6 ikasle dago, Eugin 14, Aezkoa ibarran 4 ikastetxe dago 118 ikaslerendako, edota Zirauki eta Mañerun bi ikastetxe eta 17 ikasle, guztira.

Beste barrutietarako ere aipatu denez, ikasle kopuru txikiak unitario bihurtzen ditu eskola horiek, askotan batez-bestekotik hurbil diren adierazleak dituztelarik. Hala ere, gure ustez, alderik garrantzizkoena eskola unitarioak izan behar duen neurria da, irakasle batek bere gain har dezakeen edo hartu behar duen ikasturte ezberdinen kopuruari buruzkoa, batez ere.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 29a

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

## ERASKINAK

### 1. ERASKINA. IKASLEEN BILAKAERA, IRAKASKUNTZA EREDUAREN ARABERA

| 95/96 ikasturtea | Haur h. | Lehen. h. /OHO | DBH | BBB/UBI/IEE | LH | Guztira | Ikasle guztien gaineko % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | 2.517 | 4.266 | 1.013 | 634 | 424 | 8.854 | 10 |
| B eredua | 51 | 156 | – | 28 | – | 235 | 0 |
| D eredua | 3.326 | 6.105 | 1.749 | 2.275 | 278 | 13.733 | 15 |
| G eredua | 8.043 | 21.379 | 9.033 | 17.685 | 11.077 | 67.217 | 75 |
| Guztira | 13.937 | 31.906 | 11.795 | 20.622 | 11.779 | 90.039 | 100 |

| 91/92 ikasturtea | Haur h. | Lehen. h. /OHO | DBH | BBB/UBI/IEE | LH | Guztira | Ikasle guztien gaineko % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | 1.548 | 3.975 | – | 622 | 1.012 | 7.157 | 7 |
| B eredua | 80 | 128 | – | – | – | 208 | 0 |
| D eredua | 2.896 | 7.406 | – | 1.575 | 308 | 12.185 | 12 |
| G eredua | 9.865 | 41.847 | – | 16.565 | 13.064 | 81.341 | 81 |
| Guztira | 14.389 | 53.356 | – | 18.762 | 14.384 | 100.891 | 100 |

2. ERASKINA. PLANTILEN ETA IKASGELEN BILAKAERA

**2.1. Plantilen eta ikasgelen bilakaera. Alor pribatua.**

Jarduneko unitateen bilakaera, maila, ikasturte eta jabetzaren arabera

| | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur h./ Eskolaurrea | 266 | 268 | 263 | 259 | 251 |
| Lehen h./OHO | 834 | 826 | 798 | 770 | 543 |
| Hezkuntza berezia | 27 | 25 | 23 | 21 | 21 |
| DBH | – | – | – | – | 171 |
| BBB/UBI | 209 | 211 | 209 | 210 | 208 |
| LH | 138 | 131 | 138 | 141 | 145 |
| IEE | – | – | – | – | – |
| Guztira | 1.474 | 1.461 | 1.431 | 1.401 | 1.339 |

Irakasleen bilakaera, maila, ikasturte eta jabetzaren arabera

| | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur h./ Eskolaurrea | 268 | 282 | 274 | 272 | 265 |
| Lehen h./OHO | 1.012 | 1.038 | 1.014 | 916 | 732 |
| Haur eta lehen h.ko best irak. | 128 | 70 | 66 | 160 | 44 |
| Hezkuntza berezia | 95 | 99 | 60 | 56 | 56 |
| Bigarren h./IE | 676 | 683 | 692 | 698 | 1.054 |
| Aurreguztizkoa | 2.179 | 2.172 | 2.106 | 2.102 | 2.151 |
| A. eta L. | – | – | – | – | – |
| Hizkuntzak | – | – | – | – | – |
| Musika | 9 | 10 | 12 | 10 | 10 |
| Dantza | – | – | – | – | – |
| Aurreguztizkoa | 9 | 10 | 12 | 10 | 10 |
| Guztira | 2.188 | 2.182 | 2.118 | 2.112 | 2.161 |

Iturria: Nafarroako Gobernuaren azterlana

### 2.2. Plantilen eta ikasgelen bilakaera. Alor publikoa.

Jarduneko unitateen bilakaera, maila, ikasturte eta jabetzaren arabera

| | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur h./ Eskolaurrea | 450 | 442 | 431 | 440 | 453 |
| Lehen h./OHO | 1.554 | 1.505 | 1.445 | 1.419 | 1.038 |
| Hezkuntza berezia | 26 | 24 | 22 | 20 | 22 |
| Bigarren h./IE | | | | | |
| DBH | – | – | – | – | 278 |
| BBB/UBI | 342 | 334 | 332 | 325 | 327 |
| LH | 262 | 252 | 235 | 244 | 241 |
| IEE | | | | | |
| Zikloak | 148 | 178 | 184 | 188 | 184 |
| Moduluak | – | – | – | 30 | 35 |
| Guztira | 2.782 | 2.735 | 2.649 | 2.666 | 2.578 |

Irakasleen bilakaera, maila, ikasturte eta jabetzaren arabera

| | 91/92 | 92/93 | 93/94 | 94/95 | 95/96 |
|---|---|---|---|---|---|
| Haur h./ Eskolaurrea | 486 | 490 | 464 | 474 | 481 |
| Lehen h./OHO | 1.783 | 1.775 | 1.698 | 1.549 | 1.408 |
| Haur eta lehen h.ko best irak. | 269 | 212 | 169 | 276 | 105 |
| Hezkuntza berezia | 96 | 169 | 133 | 157 | 186 |
| Bigarren h./IE | 1.676 | 1.769 | 1.809 | 1.833 | 2.441 |
| Aurreguztizkoa | 4.310 | 4.415 | 4.273 | 4.289 | 4.621 |
| A. eta L. | 51 | 51 | 54 | 60 | 51 |
| Hizkuntzak | 48 | 51 | 49 | 49 | 51 |
| Musika | 399 | 390 | 399 | 416 | 426 |
| Dantza | 7 | 9 | 13 | 8 | 10 |
| Aurreguztizkoa | 505 | 501 | 515 | 533 | 538 |
| Guztira | 4.815 | 4.916 | 4.788 | 4.822 | 5.159 |

Iturria: Nafarroako Gobernuaren azterlana

3. ERASKINA. IKASLEAK IKASTETXE PUBLIKO ETA PRIBATUETAN NOLA BANATZEN DIREN. ESTATUKO BILAKAERA

Eskolaurre/haur hezkuntzako ikasleak. 1993/1994 ikasturtea

| | Ikastetxe Publikoak | | Ikastetxe Pribatuak | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Eremu geografikoa | Ikasle kopurua | % | Ikasle kopurua | % | Guztira |
| H.K.M. | 264.756 | 66 | 135.641 | 34 | 400.397 |
| Andaluzia | 149.789 | 77 | 45.413 | 23 | 195.202 |
| Kanariak | 32.348 | 76 | 10.379 | 24 | 42.727 |
| Katalunia | 106.119 | 52 | 98.364 | 48 | 204.483 |
| Galizia | 45.318 | 71 | 18.212 | 29 | 63.530 |
| Nafarroa | 7.973 | 56 | 6.331 | 44 | 14.304 |
| Euskal Autonomi Elkartea | 25.846 | 50 | 25.656 | 50 | 51.502 |
| Valentziako Elkartea | 69.091 | 65 | 36.561 | 35 | 105.652 |
| Guztira | 701.240 | 65 | 376.557 | 35 | 1.077.797 |

Lehen hezkuntza/OHOko ikasleak. 1993/1994 ikasturtea

| | Ikastetxe Publikoak | | Ikastetxe Pribatuak | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Eremu geografikoa | Ikasle kopurua | % | Ikasle kopurua | % | Guztira |
| H.K.M. | 1.032.946 | 64 | 573.769 | 36 | 1.606.715 |
| Andaluzia | 698.115 | 75 | 232.399 | 25 | 930.514 |
| Kanariak | 157.275 | 78 | 44.372 | 22 | 201.647 |
| Katalunia | 313.907 | 54 | 269.300 | 46 | 583.207 |
| Galizia | 201.604 | 71 | 81.509 | 29 | 283.113 |
| Nafarroa | 26.882 | 56 | 21.225 | 44 | 48.107 |
| Euskal Autonomi Elkartea | 90.021 | 47 | 101.541 | 53 | 191.562 |
| Valentziako Elkartea | 280.073 | 65 | 151.586 | 35 | 431.659 |
| Guztira | 2.800.823 | 65 | 1.475.701 | 35 | 4.276.524 |

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleak. 1993/1994 ikasturtea

| | Ikastetxe Publikoak | | Ikastetxe Pribatuak | | |
|---|---|---|---|---|---|
